

## ITZULPENARI BURUZKO GOGOETA ETA ITZULPEN PRAKTIKA

### JOSEBA SARRIONANDIAREN LANETAN

**Tesiaren egilea:** Aiora Jaka Irizar

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

**Tesi-zuzendaria:** Gidor Bilbao Telletxea

**Tesiaren laburpena:**

Tesi honen helburua Joseba Sarrionandiaren itzulpen-lanak aztertzea eta itzulpenak beraren obran izandako eragina ezagutaraztea da. Hasieran bi hipotesi formulatzen dira: lehena da Sarrionandia itzultzaile postmodernoa dela, eta, bigarrena, berriz, bera izan dela euskal literaturaren historian itzulpena ikuspuntu postmoderno batetik gauzatu duen lehen itzultzailea.

Hipotesi horiek egiaztatzeko, lehen kapituluan itzulpenaren teoria desberdinak eztabaidatzen dira (itzulpen-ikasketa deskribatzaileak, ikasketa kulturalak, dekonstrukzioa, teoria postkolonialak, teoria hermeneutikoak, itzulpenaren poetikak...), teoria postmodernok teoria modernoan aurrean eskaintzen dituzten abantailak nabarmenduz, hala nola itzultzailearen esku-hartze ahalmena eta testuak manipulatzeak askatasun eta erantzukizuna, testu oren izaera ireki eta ez-mugatua, irakurleak eta itzultzaileak testu itzuliaren zentzuaren eraketan duten parte-hartzea eta itzulpenaren funtzio sortzailea.

Ondoren, bigarren kapituluan, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileek itzulpenaren inguruan egindako gogoetak aztertzen dira, eta erakusten da Euskal Herrian ez dela itzulpenaren inguruko diskurtso edo teorizazio egituraturik garatu, baina itzultzaileen hitzaurreetan behin eta berriz errepikatzen diren hainbat ideia (jatorrizkoarekiko fideltasuna, itzultzailearen otzantasun eta txikitasuna originalaren handitasunaren aurrean...) itzulpena ulertzeko modu moderno baten ondorio direla. Jon Miranderen eta Gabriel Arestiren lanetan itzulpena lantzeko modu postmoderno baten lehen zantzuak agertzen diren arren, Sarrionandiaren gauzatzen dira bete-betean itzulpenaren epistemologia postmodernoren ezaugarriak.

Ezaugarri horiek hirugarren kapituluan azaltzen dira. Sarrionandiak itzulpenaren inguruan egindako gogoetak arakatu ondoren, gogoeta horiek praktikan nola gauzatzen diren ere aztertzen da: Sarrionandiak *zer* euskaratu duen ez ezik, *nola* itzuli izan duen ere ikertzen da, eta erabili izan dituen itzulpen-estrategiak (apokrifiko edo sasi-itzulpenak asmatzea, fikziozko itzultzaileak aurkeztea, zubi-hizkuntzak erabiltzea, sorburu-testu baten inguruan bariazio eta imitazioak sortzea, jatorrizkorik gabeko itzulpenak aurkeztea...) itzulpenaren teoria postmodernoeekin uztargarriak direla erakusten da.